# DONOSTIA ZINEMALDIRAKO LAGUNTZA LANGILEEN ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA



Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

AURKIBIDEA

I.- KONTRATUAREN XEDEA

II.- ERREKERIMENDUEN SISTEMA

III.- ZERBITZUAREN KOORDINAZIOA

IV.- LANGILEAK

V.- LANGILEEN FUNTZIOAK ETA PROFILAK

VI.- UNIFORMEAK ETA BESTELAKO BALIABIDE MATERIALAK

VII.- ZERBITZUAK ESKAINTZEKO BALDINTZAK



Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

## I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Donostia Zinemaldia gauzatzeko beharrezkoak diren laguntza langileen zerbitzuak eskaintzea da, kontratuak iraun bitartean eta balizko luzapenetan. Ondorengo zerbitzu hauek eskaini beharko dira:

1. TALDEA: Sarbide-kontrolerako langileak: atezainak, aretozainak eta Zinemaldiak bere pertsonalarekin beteko ez dituen postuetako laguntzaileak.
   a) Areto-koordinatzailea
   b) Aretoetako buruak
   c) Taldeetako buruak
   d) Laguntzaileak

2. TALDEA: Sarrerak saltzeko langileak.
   a) Leihatiletako koordinatzaileak
   b) Programaziorako saltzaileak
   c) Intzidentzietarako saltzaileak
   d) Leihatilako saltzaileak

3. TALDEA: Laguntza langileak.
   a) Taldearen koordinatzailea
   b) Zerbitzu arduradunak
   c) Laguntzaileak
   d) Zerbitzua aldian aldi sendotzeko pertsonak

Zerbitzuak Kursaal Zentroan eta Zinemaldia egiten den beste esparru batzuetan emango dira.

Zinemaldiko beste departamentu edo sail batzuekin koordinatuta egingo da lana. Zinemaldiak laguntza langile propioak izango ditu. Babesleek eta kolaboratzaileek ere beren laguntzaileak edo azafatak jarri ahal izango dituzte.

## II.- ERREKERIMENDUEN SISTEMA

Laguntza langileen zerbitzuak Zinemaldiak esleipendunari bidaliko dion errekerimendu orokorrean adierazten dizkion datetan, lekuetan eta ordutegian eskainiko dira. Errekerimendu hau posta elektronikoz egingo da. Bertan zehaztuko dira beharrezkoak diren langileak, ordutegiak eta postu bakoitzeko berariazko baldintzak.

Errekerimendu orokorra egindakoan, enpresa esleipendunak posta elektronikoz erantzungo du, zerbitzua egingo duela baieztatuz eta zerbitzua beteko duten pertsonen izena, bi abizenak, NANa eta argazkia adieraziz. Jakinarazpen hori zerbitzua eskaintzen hasi baino astebete lehenago bidali beharko da gutxienez.

Errekerimendu orokorra, behar besteko epean edo premiaz aldatzen bada, enpresa esleipendunak Zinemaldiaren esku jarri beharko ditu eskatutako giza bitartekoak esandako epean. Horretarako, enpresa esleipendunak eguneko 24 orduetan erabilgarri egongo den posta elektroniko bat eta telefono bat adieraziko ditu.

## III.- ZERBITZUAREN KOORDINAZIOA

Esleipendunak koordinatzaile bat atxikiko du kontratua gauzatzeko, eta Zinemaldiak onartu egin beharko du.

Zinemaldiaren aurrean esleipenduna ordezkatuko du eta, azken batean, eskatutako zerbitzuak gauzatzeaz eta Zinemalditik jasotako aginduak praktikan jartzeaz arduratuko da, hau da,

kontratatutako zerbitzuen exekuzioa antolatzeaz arduratuko da.

Horretarako, egunero harremanetan jarriko da Zinemaldiarekin, eta Zinemaldiak deitutako bileretara joango da, aldizkakotasuna edozein dela ere, eta bere ardurapeko langileei jarduera bakoitzaren berri emateaz arduratuko da, errekerimenduaren argibideei jarraikiz. Gainera, Zinemaldiak eskatzen dion antzeko beste edozein lan egingo du.

Gutxienez lau urteko esperientzia izan beharko du kontratuaren xedearen antzeko izaera duten zerbitzu-kontratuak koordinatzen eta gainbegiratzen, 1.000 pertsonatik gorako edukierako ekitaldietan. Era berean, euskararen, ingelesaren eta gaztelaniaren B2 mailako titulu baliokidea izan beharko du (hiru hizkuntza ofizialak).

## IV.- LANGILEAK

Zerbitzuak eskainiko dituzten langileek beharrezko gaikuntza edukiko dute, plegu honetan adierazten denaren arabera.

Hurrengo V. klausulan zehazten diren lantaldearen betekizunak gorabehera, esleipenduna arduratuko da zerbitzua emateari atxikitako giza baliabidek zerbitzua prestasunez eta eraginkortasunez emateko prestakuntza egokia jasotzeaz.

Dagokien lana behar bezalako ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, Zinemaldiak agindutako lanerako arau orokorrak betetzen ez badituzte, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte, enpresa esleipendunak langileak ordezkatu beharko ditu, ahalik eta epe laburrenean. Langileak ordezkatzean Zinemaldiak ez du erantzukizunik hartzen bere gain, enpresa esleipendunak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.

Enpresa esleipendunak langileak ordezkatuko ditu gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarrengatik izaten diren bajak estaltzeko, betiere kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean eskainiz.

Klausula administratibo partikularren pleguaren karatulako 10.2 klausulan, 2. gutun-azalaren edukiari dagokionean, adierazten den moduan, lizitatzaileen erantzuteko ahalmena kontuan hartuko da.

## V.- LANGILEEN FUNTZIOAK ETA PROFILAK

Jarraian adierazten dira laguntza langileen funtzioak eta profilak:

***1. Taldea.- Sarbide-kontrolerako langileak: atezainak, aretozainak eta Zinemaldiak bere pertsonalarekin beteko ez dituen azafatak***

Lan-bolumen estimatua kategoria bakoitzeko:

Orientazio gisa, 2022an zenbat zerbitzu behar izan ziren adierazten da jarraian. Kopuru hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, edizio bakoitzaren edukiaren arabera.

a) *Areto-koordinatzailea*: 11 egun, pertsona bat.
b) *Aretoetako buruak*: 8 eta 10 egun bitartean bakoitza, 8 pertsona.
c) *Taldeetako buruak*: 1.300 ordu
d) *Laguntzaileak*: 9.100 ordu

Funtzioak kategoria bakoitzeko:

a) *Areto-koordinatzailea*: Aretoetako buruentzat zehaztutako eginkizun guztiez gain, Kursaaleko aretoko langile guztiak koordinatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratuko da, eta bere lanpostuan gertatzen diren gorabehera guztien berri emango dio Zinemaldiari, bai eta Ticketing departamentuari ere, sarrerekin eta erreserbekin zerikusia duen guztirako. Halaber, Zinemaldiko ekoizpen-taldeari laguntza emango dio egiten diren jardueretan, eta Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egingo du, lanpostuarekin bat datorrena.

b) *Aretoetako buruak*: Talde hau beren ardurapean pertsonak dituzten eta erabakiak hartzeko eskumena duten buruek osatuko dute. Areto-koordinatzailearen aginduetara lan egingo dute eta ondorengo zereginak izango dituzte:

- Bere ardurapean duten taldea koordinatzea.
- Egiaztatzea egun horretan eta hurrengoan proiektatu beharreko filmak sisteman sartuta daudela, formatu digitalean badira, edo aretoan utzita, beste formatu batean badira.
- Aretoaren antolaketa eta sarbideen kontrola.
- Emanaldiaren hasierako koordinazioa (kabina-aretoko langileak).
- Zinemaldikok langileen eta aurkezpen eta solasaldietako audio- eta irudi-ekipoen aretoko langileen arteko koordinazioa (megafonia txikia, ordenagailu eramangarria, bideo-proiektagailua...) eta hura maneiatzea.
- Solasaldien, eztabaiden eta aurkezpenen iraupenak kontrolatzea, programazioa gainjar ez dadin.
- Erreserbak kontrolatzea eta Zinemaldiko ticketing departamentuarekin koordinatzea.
- Egunero egunkarien hornikuntza kontrolatzea.
- Abisuak eguneratzea.
- Aretoetan proiekzioak grabatzeko saialdiak kontrolatzea (antipirateria).
- Administrazio-lan txikiak egitea eta aretoko kultura-jarduerak eta babesleenak abian jartzen laguntzea (materialak lekualdatzea, dekorazio elementuak jartzea, opariak…).
- Zinemaldiaren antolakuntzarik jasotako informazio guztia aretoan dagokionari helarazteaz arduratzea.
- Gonbidatuen eta erabiltzaileen iradokizun eta erreklamazioei lehen erantzuna ematea, Zinemaldiak ezarritako jarraibide, irizpide eta protokoloen arabera.
- Ekitaldiari buruzko txosten bat entregatzea, gorabeherak eta hobekuntzak jasotzen dituena, Zinemaldia amaitutakoan.
- Postuarekin bat datorren eta Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egitea.

c) *Taldeetako buruak*: Talde hau beren ardurapean pertsonak dituzten eta erabakiak hartzeko eskumena duten taldeburuek osatuko dute. Zinemaldiko koordinatzaile baten aginduetara lan egingo dute. Laguntzaileentzat zehaztutako zereginak ez ezik, ondorengo hauek ere egin beharko dituzte:

- Bere ardurapean duten taldea koordinatzea.
- Bere ardurapeko esparrua edo eremua irekitzea, ixtea eta aldizka errondak egitea.
- Gonbidatuen eta erabiltzaileen iradokizun eta erreklamazioei lehen erantzuna ematea, Zinemaldiak ezarritako jarraibide, irizpide eta protokoloen arabera.
- Beren lanpostuan gertatutako gorabehera guztien berri ematea Zinemaldiari.
- Postuarekin bat datorren eta Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egitea.

d) *Laguntzaileak*: Talde hau erantzukizun mugatuko laguntzaileek osatuko dute eta guztiek taldeko buru baten aginduetara lan egingo dute. Funtzio hauek izango dituzte:

- Gonbidatu eta erabiltzaileen sarrera kontrolatu Zinemaldia ospatzen den gune desberdinetan, Zinemaldiak emandako arauak eta argibideak jarraituz.
- Gonbidatu eta erabiltzaileen jokabidea zaindu, kasu bakoitzean ezarritako funtzionamendu-arauak eta protokoloak bete daitezen ahaleginak eginez.
- Gonbidatuei eta erabiltzaileei ateak ireki aurretik instalazioen eta guneen egoera ona

gainbegiratzea, baita ekitaldi bakoitza amaitzean espazioen azterketa egitea ere, eta, amaitu ondoren, besaulkiak altxatzea, aulkiak jartzea, paperak jasotzea eta abar, Taldeko buruari gertatutakoaren berri emanez eta aurkitzen duten edozein objektu emanez.
- Esparrura sartzen laguntzeko elementuak (katenariak, mahaiak, paperontziak, hautsontziak, aulkiak, hesiak egokitzea, espazioak mugatzea, etab.) mugitu ahal izateko, hornidurak berritzeko (ur-botilak eta aretoaren beharrekin lotutako beste hornidura batzuk), Zinemaldiko gonbidatuen arretan eta beharretan laguntzeko (laguntzaileak, etab.), aldi bereko itzulpenen hartzaileak emateko edo Taldeko buruak edo Zinemaldiko langileek eskatzen dieten beste edozein zeregin egiteko prest egongo dira.
- Gonbidatuen eta erabiltzaileen iradokizun eta erreklamazioei lehen erantzuna ematea, Zinemaldiak ezarritako jarraibide, irizpide eta protokoloen arabera.
- Postuarekin bat datorren eta Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egitea.

<u>Eskainiko diren langileak eta betekizunak kategoria bakoitzeko</u>:

a) *Betekizun komunak*:

- Ez da inolako preziorik finkatuko jarduera-arau orokorrak jakinarazteko eta ekitaldiaren xehetasunak argitzeko Zinemaldiak deitzen dituen talde bilerengatik. Bileretara agertzea nahitaezkoa izango da.
- Langileek gutxienez B2 maila edo baliokidea izan beharko dute euskaraz, ingelesez eta gaztelaniaz.
- Informatika-ezagutza erabiltzaile mailan.
- Langileek komunikazio-trebetasunak (ahozkoa eta idatzizkoa), harreman pertsonalak eta gatazkak konpontzeko gaitasuna izan beharko dituzte.

b) *Areto-koordinatzailearentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak eguneko prezio bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartutako egongo dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita kontratistaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Langileak gutxienez lau urteko esperientzia izan beharko du goian adierazitako eginkizunak betetzen 1.000 pertsona baino gehiagoko edukiera-esparruetan.
- Eskaintzan postu honetako pertsonaren curriculum vitae bat aurkeztuko da.
- Ordutegi zabala estaltzeko prest egon beharko du.

c) *Aretoetako buruentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak eguneko prezio bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita kontratistaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Langileek gutxienez lau urteko esperientzia izan beharko dute goian adierazitako eginkizunak betetzen 1.000 pertsona baino gehiagoko edukiera-esparruetan.
- Eskaintzak gutxienez 8 pertsonako zerrenda izango du, curriculum vitaearekin.
- Ordutegi zabala estaltzeko prest egon beharko dute.

d) *Taldeko buruentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak orduko prezio bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Langileek gutxienez lau urteko esperientzia izan beharko dute goian adierazitako

eginkizunak betetzen 1.000 pertsona baino gehiagoko edukiera-esparruetan.
- Eskaintzak gutxienez 5 pertsonako zerrenda izango du, curriculum vitaearekin.
- Ordutegi zabala estaltzeko prest egon beharko dute.

e) *Laguntzaileentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak orduko prezio bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Eskaintzak gutxienez 60 pertsonako zerrenda izango du, curriculum vitaearekin.

***2. Taldea.- Sarrerak saltzeko langileak***

Lan-bolumen estimatua kategoria bakoitzeko:

Orientazio gisa, 2022an zenbat zerbitzu behar izan ziren adierazten da jarraian. Kopuru hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, edizio bakoitzaren edukiaren arabera.

a) *Leihatiletako koordinatzaileak*: 2 pertsona, 41 egun.
b) *Programaziorako saltzailea:* 2 pertsona, 41 egun, 1 pertsona, 27 egun.
c) *Intzidentzietarako saltzailea:* 290 ordu.
d) *Leihatilako saltzaileak*: 1.620 ordu.

Funtzioak kategoria bakoitzeko:

a) *Leihatiletako koordinatzaileak*:

- Bere ardurapean duen taldea koordinatzea.
- Leihatilako programara migratutako Zinemaldiaren programazioa egokitzea eta berrikustea.
- Leihatilako programara migratu gabeko Zinemaldiaren ekitaldiak eta saioak programatzea.
- Erreserbak kudeatzea, leihatilako programaren bidez.
- Programazio-aldaketak erregistratzea, leihatilako programaren bidez.
- Zinemaldiko sarrera digital (Home Ticket) konprometituak sortzea.
- Leihatila guztietako eguneroko kontaketa koordinatzea eta gainbegiratzea eta, oro har, Zinemaldiko leihatila ofizialaren funtzionamendu orokorra zaintzea.

b) *Programaziorako saltzaileak*: Leihatilako saltzaileentzat aipatutako funtzioez gain, hauek egingo dituzte:

- Leihatilako programara migratutako Zinemaldiaren programazioa egokitzea eta berrikustea.
- Leihatilako programara migratu gabeko Zinemaldiaren ekitaldiak eta saioak programatzea.
- Programazio aldaketak erregistratzea, leihatilako programaren bitartez.
- Zinemaldiko sarrera digital (Home Ticket) konprometituak sortzea.
- Telefono bidezko salmenta eta MUP (mugikortasun urriko pertsonak) besaulkiak esleitzea Zinemaldiko saioetan.
- Akreditatuen leihatiletan laguntzea eta horiek gainbegiratzea.
- Leihatilako programaren administratzaile zereginarekin lotura duen beste zeinahi eginkizun.

c) *Intzidentzietarako saltzailea*: Sarreren salmentari dagozkion gorabeherak telefonoz eta posta elektronikoz artatzea eta ebaztea. Lanak Zinemaldiak ezarritako irizpideen arabera egingo dira.

d) *Leihatilako saltzaileak*:

- Zinemaldiko sarrerak saltzea, Zinemaldiak ezarritako eta argitaratutako arauak errespetatuz.
- Salmenta postuko eguneroko diru-kontuak eta dagokien likidazioa egitea zerbitzuburuaren edo hura ordezkatzen duen pertsonaren aurrean.
- Lanpostuaren egoera ona gainbegiratzea eta dagokion lana egiteko beharrezkoak zaizkion elementu guztiak eskura dituen erantzukizuna bere gain hartzea.
- Iradokizunak erantzutea eta erreklamazioak erregistratzea, Zinemaldiak ezarritako prozedura jarraituz.
- Zerbitzuburuak erabakitako jardueratik eratortzen diren zerbitzu osagarriak gauzatzea.
- Gertatzen diren gorabeherak erregistratzea eta berorien berri ematea zerbitzuburuari edota Zinemaldiak kasu hauetarako bitartekari gisa izendatu duen pertsonari.
- Zinemaldiak eskatzen duen eta deskribatutako profilarekin bat datorren antzeko beste edozein funtzio betetzea.
- Noizean behin, beste talde bati dagozkion antzeko kategorietako lana egin ahal izango dituzte.

Eskainiko diren langileak eta betekizunak kategoria bakoitzeko:

a) *Betekizun komunak*:

- Langileek esperientzia eduki beharko dute sarreren salmentan.
- Langileek gaztelania eta euskararen B2 maila edo baliokidea izan beharko dute gutxienez. Zinemaldiko hirugarren hizkuntza ofiziala izanik, positiboki baloratuko dira ingeleseko ezagutzak.
- Langileek komunikatzeko trebetasuna (idatziz eta ahoz komunikatzekoa) eta harreman pertsonaletarako trebetasunak eduki beharko dituzte, bai eta arazoak modu diplomatikoan konpontzeko gaitasuna ere.

b) *Leihatiletako koordinatzaileentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak eguneko prezio bat ezarriko du, jaiegunetarako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egongo dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Esperientzia duela erakutsi beharko du sarreren salmentako programen administratzaile gisa. Erabilitako programa zehaztu beharko da.
- Lantaldeen kudeaketan esperientzia.
- Excel-eko ezagutza aurreratuak.
- Eskaintzan, gutxienez, lanpostu honetarako izendatutako 2 pertsonen curriculum vitaea jasoko da.
- Ordutegi zabala eskaintzeko prest egon beharko dute.

c) *Programaziorako saltzaileentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak eguneko prezio bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Esperientzia duela erakutsi beharko du sarreren salmentako programen administratzaile gisa. Erabilitako programa zehaztu beharko da.

- Excel-eko ezagutza aurreratuak.
- Eskaintzan, gutxienez, lanpostu honetarako izendatutako 3 pertsonen curriculum vitaea jasoko da.
- Ordutegi zabala eskaintzeko prest egon beharko dute.

d) *Intzidentzietarako saltzaileentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak orduko prezio bakar bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Formakuntzarako orduko prezioaren zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako orduko prezioaren % 50 izango da. Ikastaroetan parte hartzea nahitaezkoa izango da.
- Langileek gaztelania, euskararen eta ingelesaren B2 maila edo baliokidea izan beharko dute gutxienez.
- Eskaintzak gutxienez 4 pertsonako zerrenda izango du, curriculum vitaearekin.

e) *Leihatilako saltzaileentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak orduko prezio bakar bat ezarriko du, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egon beharko dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Heziketarako orduko prezioaren zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako orduko prezioaren % 50 izango da. Ikastaroetan parte hartzea nahitaezkoa izango da.
- Eskaintzak gutxienez 25 pertsonako zerrenda izango du, curriculum vitaearekin.

***3. Taldea.- Laguntza langileak***

Lan-bolumen estimatua kategoria bakoitzeko:

Orientazio gisa, 2022an zenbat zerbitzu behar izan ziren adierazten da jarraian. Kopuru hori aldatu egin daiteke urte batetik bestera, edizio bakoitzaren edukiaren arabera.

a) *Taldearen koordinatzailea*: Lagun bat, 11 egunetan lan eginez.
b) *Zerbitzuburuak*: 2 lagun, bakoitzak 11 egunetan lan eginez.
c) *Laguntzaileak*: 6 lagun bakoitzak 5 eta 10 egun artean lan eginez.
d) *Zerbitzua aldian aldi sendotzeko pertsonak*: 80 ordu.

Funtzioak kategoria bakoitzeko:

a) *Taldearen koordinatzailea*: Zinemaldiak zehaztutako arduradunaren menpe egongo da. Bere ardurapean duen ekoizpen-taldea koordinatzeaz arduratuko da, zerbitzuburuen bitartez; hala, behar beste agindu eta argibide emango dizkie haien kategorietan azaldutako zereginak egin ditzaten. Horretaz gain:

- Zinemaldiaren gonbidatuek gehien bisitatzen dituzten esparruetan beharrezko dispositiboak planifikatuko eta prestatuko ditu (hala nola, *photocall* deitutakoak, prentsaurreko ofizialak, Sail Ofizialaren arratsaldeko eta gaueko saioak, hotelak…).
- Zinemaldiko departamentuekin koordinatuko da egunero behar duten guztian, bereziki Zuzendaritza, Harreman Publikoak, Protokolo, Ekoizpen eta Komunikazio departamentuekin.
- Zinemaldiari bere lanpostuan gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea.
- Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egitea, lanpostuarekin bat datorrena.

b) *Zerbitzuburuak*: Ekoizpen laguntzaileentzat eta zerbitzua aldian aldi sendotzeko pertsonentzat aipatutako funtzioez gain, ondorengoak egingo dituzte:

- Bere ardurapean duten taldea koordinatzea.

c) *Laguntzaileak eta zerbitzua aldian aldi sendotzeko pertsonak*:

- Zinemaldiko gonbidatuei laguntzea, Zinemaldiaren jarraibideen arabera, haien ongizatea zainduz.
- Zinemaldiko gonbidatuak gehien ibiltzen diren guneetan eta esparruetan sarbideak kontrolatzea eta zaintza lanak egitea, adibidez, *photocall* deitutakoetan, prentsaurreko ofizialetan, Sail Ofizialeko arratsaldeko eta gaueko emanaldietan, hoteletan, etab.
- Zinemaldiko sailekin lankidetzan aritzea, behar duten guztian, batez ere harreman publikoekin, protokoloarekin, komunikazioarekin eta ekoizpenarekin.
- Lanpostuan gertatutako gorabehera guztien berri ematea Zinemaldiari.
- Zinemaldiak zehazten duen beste edozein lan egitea, lanpostuarekin bat datorrena.

Eskainiko diren langileak eta betekizunak kategoria bakoitzeko:

a) *Betekizun komunak*:

- Ez da inolako preziorik finkatuko jarduera arau orokorrak jakinarazteko eta ekitaldiaren xehetasunak argitzeko Zinemaldiak deitzen dituen talde bilerengatik. Bileretara agertzea nahitaezkoa izango da.
- Ordutegi zabala estaltzeko prest egon beharko dute.
- Langileek gaztelania, euskararen eta ingelesaren B2 maila edo baliokidea izan beharko dute gutxienez.
- Langileek komunikatzeko trebetasuna (idatziz eta ahoz komunikatzekoa) eta harreman pertsonaletarako trebetasunak eduki beharko dituzte, bai eta gatazkak konpontzeko gaitasuna ere.
- Langileek larrialdi-irteeren eta sute-aho ekipatuen kopurua eta kokapena ezagutu beharko dituzte, baita horiek behar bezala erabiltzen jakitea, larrialdietan, esleitutako espazioaren autobabes-palaren arabera jarduteko.

b) *Taldearen koordinatzailearentzat berariazko betekizunak:*

- Zinemaldia hasi baino 2 aste lehenago libre egon beharko da ekitaldia antolatzeko aurretik sor daitezkeen bileretara joateko.
- Eskaintzak prezio itxi bat ezarriko du ekoizpen-taldearen koordinatzaileak lan egingo duen epe guztiagatik, jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egongo dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Eskaintzan postu honetako pertsonaren *curriculum vitae*-a jasoko du.

c) *Zerbitzuburuentzat, laguntzaileentzat eta zerbitzua aldian aldi sendotzeko pertsonentzat berariazko betekizunak:*

- Eskaintzak eguneko prezio bakar bat ezarriko du ekoizpen laguntzaileentzat, eta beste eguneko prezio bat zerbitzuburuentzat, guztientzat jaiegunetako, gaueko edo aparteko orduak aintzat hartuta. Prezioan sartuta egongo dira zerga, gastu, lekualdatze eta fiskalitate arloko beste ordainkizun guztiak; baita esleipendunaren mozkin industriala ere, BEZa izan ezik.
- Zerbitzua sendotzeko langileen prezioa orduka kalkulatuko da.
- Eskaintzak zerrenda bat izango du, gutxienez 15 pertsonarekin eta curriculum vitaearekin. Zerrenda horretatik 2 curriculum vitae proposatuko dira zerbitzuburuentzat.

## VI.- UNIFORMEAK ETA BESTELAKO BALIABIDE MATERIALAK

Langileei beren eginkizunetarako uniforme edo jantzi egokiak ematea enpresa esleipendunaren kontura izango da.

Esleipendunak memoria teknikoan uniforme eta jantzi proposamen jakin bat egingo du. Uniforme desberdinak izan daitezke, lan motaren eta postuaren arabera. Kontuan hartuko da, orobat, laguntza langileak (3. Taldea) ez direla uniformez jantzita joango, bestelako jantzi formalez baizik.

Nolanahi ere, uniformeek eta jantziek profesionaltasun, seriotasun, formaltasun eta dotoretasun irudia eman behar dute.

Esleipenduna izango da erantzulea janzteko orduan garbitasun, txukuntasun eta uniformetasunik eza badago.

Enpresa esleipendunak jantzi eta uniformeen ezaugarriak eta diseinua aldatu beharko du, Zinemaldiak eskatzen badio.

Enpresa esleipendunak emango dizkie langileei lana egiteko behar diren baliabide materialak (mugikorrak, walkie-talkie komunikazio-sistemak, linternak, pertsonen kontagailuak…).

## VII.- ZERBITZUAK ESKAINTZEKO BALDINTZAK

a) Enpresa esleipendunak eta langileek Zinemaldiak agintzen dituen portaera-arauak onartu eta beteko dituzte, bereziki jendaurreko eta gonbidatuen arretarekin lotuta daudenak.

b) Enpresa esleipendunak eta langileek zerbitzuak eskaintzen diren lekuan lan egiten duten gainerako ekipoekin batera lan egingo dute.

c) Langile guztiek ezagutu beharko dute zerbitzua ematen ari diren lokal edo eraikineko ebakuazio plana eta ezbehar eta/edo larrialdi kasuan, esandako planaren arabera jokatuko dute.

d) Langile guztiek jarrera atsegina, zuzena, errespetuzkoa eta informazioa emateko irekia erakutsiko dute gonbidatuen, langileen eta jendearen aurrean, bai eta zerbitzuak eskaintzen diren lekuan lan egiten duten gainerako langileen aurrean ere.